

JARIOTASUNA LANTZEKO MINTZAMEN-ARIKETA EREDUAK

Akatsen bilduma analitikoa
Helduaren motibazioak bigarren
hizkuntzaren ikaskuntzan
Stephen Krashen-ekin elkarrizketan

IV URTEA
12. zenb.
1986 IRAILA-ABENDUA
500 pzta.



euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria

ZUTABE

Zuzendaritza: Iñaki ARANBERRI
Pello ESNAL
Imanol IRIZAR
Gurutz LARRAÑAGA
Boni URKIZU


Koordinatzailea: Joanba BERGARA

Idazkaritza-Harpidetzak: HABE
ZUTABE aldizkaria
Reina Regente 2-1. a
20003 Donostia – Tel.: (943) 291811

1986erako prezioak: Ale bakoitza: 500 pzta.
Harpidetza: 1.250 pzta edo 100 libera

Urgent

ZUTABE



AURKIBIDEA

GAI MONOGRAFIKOA

Mintzamena

- Jariotasuna lantzeko mintzamen-ariketa ereduak (Begoña Martinez) 11

ESPERIENTZIAK

- Akatsen bilduma analitikoa (Imanol Unzurrunzaga) 53
- Zentru Ingelesa (Paul Meniss) 76

ITZULPENAK ETA LANKIDETZAK

- Egoera txarrari, etekin ugari (Donn Byrne) 85
- Hiztegia irakasteko teknikak (ISP Nation) 90
- Irakurmena (Lourdes Elozegi) 93
- Helduaren motibazioak bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan (Joanba Bergara) 101
- Peter Kline: sugestopedia hezkuntzan (Saro Manrique) 108

ELKARRIZKETA

- Stephen Krashen (Jose Ignacio Hualde) 115

GURE MUNDUTXOA

- Alemaniera-irakasleen nazioarteko 8. biltzarra Zuritx-Suitzan (Jürgen Wolff) 123
- Irakasle berrien prestaketarako ikastaroa (Xabier Elortza) 124
- «Galbahe» testak (Ibon Olaziregi/Josu Sierra) 124
- «Clase de euskera» telesaioa (Xabier Gereño) 125
- Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz (Gurutz Larrañaga) 125
- Itzulpen Saila - 1986: 9-12. zenbakiak (Imanol Irizar) 127
- Euskalduntzearen B mailarako zazpi langai berri kalean (Pello Esnal) 127
- «Aurten bai» kanpaina Bizkaian (Josu Goikoetxea) 128

LIBURUAK

- ELGOIBARKO EUSKARA MINTEGIA: Euskal Hizkuntza eta Literatura (I. Arrieta) 133
- KRASHEN, S.D.; TERRELL, T.D.: The Natural Approach. Language Acquisition in the Classroom (J. Bergara) 133
- LIMAGE, L.J.: El analfabetismo en los países industrializados: comentario sociológico (G. Larrañaga) 135
- UZTAPIDE: Lengo egunak gogoan (P. Esnal) 136

AURKIBIDEAK

- Egileka 141
- Gaika 143

SARRERA

Eskuartean duzu aurtengo azken Zutabe, irakurle. Gure ustez interesa duten gaiak ikutzen saiatu gara aurten argitara eman ditugun hiru aleetan. Zuk esan beharko diguzu asmatu dugun ala ez. Ez dago esan beharrik zure kritika eta proposamen berrien zain gaudela. Halaber, euskalduntze eta alfabetagintzan egunero dihardutenen artikululu edo lanak ongi etorriak izango direla gogoratzen dizugu. Ia konturatu gabe urtea amaitzeaz dagoen honetan, datorren urteko plangintza prestatzeari ekin beharko diogu berriro. Beraz, mementu ezin hobea duzu gurekin harremanetan jartzeko. Horrelakorik erabakitzen baduzu, hartu aurrez gure eskerrik beroenak. Dena den, aldizkariarekiko erakusten duzun interesa aski dugu indarberritu eta aurrera jarraitzeko.

Hori esanda, azken ale honi buruz bi hitz esan nahi dizkizugu aurkezpen gisa.

«Monografia» sailean mintzamena hartu dugu aztergaitzat, HABEren Euskalduntzerako Langaletan agertzen diren mintzamen-ariketen sorta sistematizatzeko asmoz, mintzamenak bere garapenean dituen zenbait alderdi teoriko datorren urterako utziz. Oraingoan mintzamena lantzeko erabili ohi diren ariketa-ereduak deskribatzeari ekin diogu, zuk mintzamen-saioetan nahiko errekurso aurkituko duzulakoan. Monografia honetako ariketa sortak batez ere jaritasuna lantzeko modukoak dira, hau da, hizkuntzaren berezko erabilerari lehentasuna ematen dioten horietakoak. Ariketa hauen hastapen nagusienak zeintzu diren eta antolamenduaren alorrean sor daitezkeen arazoei aurpegia nola eman adierazten dugu argi eta garbi. Horrela, zure taldearen ezaugarriak nolakoak diren kontutan hartuz, beste mila ariketa sortu edo egokitzea errazago gertatuko zaizu.

«Esperientziak» saila bi artikuluk osatzen dute. Lehenengoan, Euskalduntzearen C eta EGA mailetakoa idazlanetan okerrik errepikatuenak bildu eta sailkatu ditu egileak. Aurrez, atal bakoitzeko akatsen zergatiak aztertu eta zuzenbideren bat proposatu ondoren, atal bakoitzeko akats nabarmenak banan-banan azaltzen ditu. Zalantzarik gabe, ikasleei mesede egingo die alderdi ilun horiek ikusi, aztertu eta zuzentzeak. Bigarren artikuluan, egileak azken urteotan hizkuntz eskola zenbaitek ikasleek beren ikaskuntzan eskolaz kanpo dituzten beharrak aintzakotzat hartuz sortu dituzten norberak erabiltzeko moduko baliabideak aztertzeari ekiten dio. Horrelako zentruetan aritzeak eman dion eskarmentuaren laguntzaz, saiatu da eskualdeko ikasleen premien arabera zentru horien helburua eta antolaketa zernolakoak izan daitezkeen azaltzen.

«Lankidetzak eta Itzulpenak» sailean bost artikulua dituzu. Lehenengoarekin amaitutzat ematen dugu hurbilpen komunikatiboari buruz 7-8. alean hasitako azterketa. Guztira bost artikulua izan dira. Donn Byrne-ren azken hau bikaina dela esan behar dizugu; izan ere, tokian tokiko beharrei egokituz, hurbilpen komunikatiboari etekin ugaria atera bait dakioke. Bigarrenak hiztegia irakastekoan balio handiko izan daitezkeen iradokizun batzu ematen ditu. Hirugarrena, bere aldetik, hizkuntz irakaskuntzan irakurmenaren garapenak duen garrantziaz ari da. Egileak, trebetasuna definitu ondoren, hastapen metodologikoak aztertu eta ariketa-eredu zenbait proposatzen ditu. Laugarrenak, berriz, motibazioaz dihardu. Ezinbesteko indarra du zenbait faktore afektibok heldua bigarren hizkuntza ikasten ari denean. Helduaren xede-hizkuntzaz komunikatu beharra eta xede-hizkuntza duen taldearekiko jarrera ezinbestez aztertu beharko ditugu helduaren arrakasta nahiz porrota ulertu nahi badugu. Azken artikulua Kline-k Sugestopediaren alorrean egindako lanaren berri dakar. Psikologia Humanistaren hastapenak eta burmuinaren munduan buruturiko azken aurkikuntzak praktikan jarritz, gizakiaren sormena izugarri suspertzen dela dio Kline-k. Besteak beste, eskoletako haur eta gazte atzeratuekin Sugestopediaren bidez lorturiko emaitzak ikusteko aukera izango duzu.

«Elkarrizketa» sailean hizkuntzalaritza aplikatuaren eremuan gaurregungo iker-tzaile handienetako batekin hizketatzeko aukera izan dugu. Los Angeles-eko University of Southern California-n Krashen-en ikaslea izana den Jose Ignacio Hualderen bidez lortu dugu hori, hain zuzen. Liburu eta artikulua askoren egilea dugu Krashen, hurbilketa iraultzaile baten sustatzaile, batzuren iritziz. Urte mordoska eman du Krashen-ek teoria koherente baten osagaiak aztertzen. Orain bost urte, 1981. ean hizkuntz irakaskuntzaren alorrean urte horretako ekarpenik handiena egiteagatik sona handiko saria lortu zuen. Lehenengo partean bere ikerketa zahar eta berrien berri ematen digu eta bigarrenean, berriz, elebizko heziketa eta murgil programez, euskararen egoerari buruzko eritziak eta aholkuak ere eskaintzen dizkigularik.

Azkenik, ohizko beste sailez aparte, aurtengo aleen aurkibideak eskaintzen dizkizugu.

Zure gustokoa gerta dadila. Txoko honetatik Eguberri eta Urteberri onak opa dizkizugu.